



TOLOSAKO
UDALA

Espedientea	2026DO100005
Departamentua	KIROLAK
Gaia	2026ko JARDUERA BEREZIAK LEHIA BIDEZKO DIRULAGUNTZA

ALKATETZA DEKRETUA

Tolosako Udaleko Alkatea Angel Martinez de Rituerto Arregui, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuen. Geroztik, bi aldaketa izan ditu, GAO, 68 zk., 2023-01-26an eta GAO, 89 zk., 2024-05-09an.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2026-2028 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerroa sartua dago: Tolosako kirol-klubei funtzionamendugastuetarako eta jardueren sustapenerako 2026ko dirulaguntza. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2025eko azaroaren 27an (GAO, 7. zk., 2026-01-13).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako 6.000 euroko zenbatekoa finkatu da, 2026ko udal aurrekontuaren 1000.481.03.341.00 partidan.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalak, 2025/1067 Dekretuaren bidez, lehia konkurrentziadun onartu zituen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 82. zenbakian, 2025eko maiatzaren 5ean argitaratu dira, zehazki, honako hauek:

Deialdiaren izena: 2026ko Kirol Jarduera bereziak antolatzeko dirulaguntzak.

Helburua: Lehia bidezko konkurrentzian, 2026an kirol jarduera berezien antolaketarako dirulaguntzak banatzea.

BOSGARRENA.- Behin eskaerak aurkezteko epea igarota, Tolosako Udaleko erregistroan ez da eskaerarik jaso.

Hori horrela, Jarduneko Alkateak

EBATZI DU

Lehena: Jarduera berezien dirulaguntza lerroa, 2026DO100005 espedientea hain zuzen ere, balio gabe uztea.

Bigarrena: Dirulaguntza lerro horretarako gordeta zeuden 6.000 € aske uztea.



Hirugarrena: Kontuhartzaitzari guzti honen berri ematea.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatearen aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, Udal Idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026DO100005-dekretua/decreto (Udala)